

Ez da tasarik ordaindu behar bolatokia elkarteek edo klubek antolatutako txapelketarako edo txapelketen aurreko entrenamenduetarako (txapelketaren aurreko astea) erabiltzen denean.

11.- HAUR ZAINKETAKO TASA

Ohiko erabilera	70 euro/hilabetero ume bakoitza (4-5 egun astean)
Noizbehinkako erabilera	7 euro/egunero ume bakoitza
2. umea eta hurrengoak	ehuneko 20ko deskontua

Hobariak:

- Aldizkako erabilpenak ez du hobaririk sortzen.
- Ehuneko 50ekoa, familia-unitatearen urteko diru-sarrerak, lanbi-dearteko gutxieneko soldata familiako pertsona bakoitzeko 1,25 aldiz gainditzen ez duenean.
- Ehuneko 30ekoa, familia-unitatearen urteko diru-sarrerak, lanbi-dearteko gutxieneko soldata familiako pertsona bakoitzeko 1,5 aldiz gainditzen ez duenean.

Ondategin, 2010eko urriaren 5ean.– Alkatesa, NURIA LÓPEZ DE LETONA LENGARAN.

Administrazio Batzarrak

GORDOA

6437

Behin betiko onartzea Gordoako OPko 312 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendurako ordenantza.

Kontzeju honek, 2010eko abuztuaren 18ko aparteko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Gordoako OPko 312 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzari, eta ordenantza hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen martxoaren 20ko 11/95 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoa betez, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

GORDOAKO ONURA PUBLIKOKO 312. MENDIAN FRUITU, PERRETXIKO, LANDARE ETA LOREEN APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Gaurko gizarteak naturari buruz duen ikuspegia aldatzen ari da pixkanaka, gero eta indartsuago sumatzen baita landa ingurunerako zaletasuna atseden hartzeko, aisiarako zein harekin bat egiteko.

Urteko sasoi batzuetan gure mendiek jasaten dituzten gehiegikeriak ikusirik, beharrezkoa dirudi oraingoa ez bezalako kudeaketa mota batek, tokian tokiko ohitura zaharretan oinarrituak.

Espekulazioak, bideek, basoko esparruek eta inguruneak, oro har, zuzeneko eragina dute, adibidez, Gordoako onura publikoko 312. mendiaren jabeen bizi kalitatean. Gero eta garbiago ageri da jarduera mikologikoaren eta landa garapenaren arteko lotura, jarduera horrek eragin handia baitu paisaiaren kontserbazioan eta herri askotako gizartearen eta ekonomiaren egiturari.

Mikologiari lotutako jarduerak ekonomiaren eta gizartearen garapenerako lagungarriak izan daitezken, baliabideen erabilera arduratsua sustatu behar da eta elkarteen jarduerak babestu behar dira, aldi berean tokian tokiko kultur nortasunari eusten zaiola.

Herriarren parte-hartzeaz sortzen ari den eta Gordoako Kontzejuak ontzat ematen duen turismo proiektuan, hainbat arlo landu eta indartu nahi dira gure herrian: ostalaritza, ondarearen kontserbazioa, kultura, kirola eta, zergatik ez, baita "turismo mikologikorako" baliabideak ere.

Garapenerako edozein proiektutan funtsezko helburuetakoa da proiektuaren xede diren eta emaitzen onuradun izan daitezkeen

Estará exento del abono de esta tasa el uso de la bolera para la realización de campeonatos y entrenamientos previos a éstos (1 semana antes del campeonato) que se organicen por las asociaciones/clubs

11.- TASA POR SERVICIO DE CUSTODIA INFANTIL

Uso habitual	70 euros/mes por cada niño/niña (4-5 días semana)
Uso ocasional	7 euros/día por cada niño/niña
2º hijo y sucesivos	20 por ciento de descuento

Bonificaciones:

- El uso ocasional no genera bonificación.
- Del 50 por ciento cuando los ingresos anuales de la unidad familiar no superen el 1,25 veces el salario mínimo interprofesional por cada miembro de la unidad familiar.
- Del 30 por ciento cuando los ingresos anuales de la unidad familiar no superen el 1,5 veces el salario mínimo interprofesional por cada miembro de la unidad familiar.

En Ondategi, a 5 de octubre de 2010.– La Alcaldesa, NURIA LÓPEZ DE LETONA LENGARAN.

Juntas Administrativas

GORDOA

6437

Aprobación definitiva de la Ordenanza Reguladora del aprovechamiento de frutos, setas, plantas y flores en el MUP 312 de Gordo.

Habiendo sido aprobada inicialmente por este Concejo, en Sesión Extraordinaria celebrada el día 18 de agosto de 2010, la Ordenanza Reguladora del aprovechamiento de frutos, setas, plantas y flores en el M.U.P. 312 de Gordo y no habiéndose presentado reclamaciones durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobada. Por lo que a efectos de lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 11/95, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

ORDENANZA REGULADORA DEL APROVECHAMIENTO DE FRUTOS, SETAS, PLANTAS Y FLORES EN EL M.U.P. 312 DE GORDOA

La visión que la sociedad actual tiene de la naturaleza, está cambiando de forma gradual, de manera que se siente cada vez con mayor fuerza el atractivo hacia el mundo rural como medio de esparcimiento, de ocio y de identificación con el mismo.

El sometimiento al que en ciertas épocas del año se ven sometidos nuestros montes, parece requerir una gestión diferente a la actual, basada, en las ancestrales costumbres locales.

La especulación, los caminos, los acotados forestales y el medio en general, tienen una influencia directa, por ejemplo, en la calidad de vida de los propietarios del M.U.P 312 de Gordo. La actividad micológica aparece cada vez más relacionada con el desarrollo rural en cuanto esta incidiendo de forma importante en la conservación del paisaje y en la estructura social y económica de muchas localidades.

Para que las actividades asociadas a la micología puedan favorecer el desarrollo económico y social deben promover un uso responsable de los recursos, así como el apoyo a las actividades asociadas, manteniendo al mismo tiempo la identidad cultural local.

El proyecto turístico que la participación ciudadana gesta y este Concejo de Gordo aprueba, se encamina hacia la potenciación de nuestra localidad en diferentes entornos, alojamiento, conservación patrimonial, cultural, deportivo y porque no de los recursos "turismo micológico"

En cualquier proyecto de desarrollo, uno de los objetivos fundamentales, es implicar a la población que son los destinatarios y los

biztanleak inplikatzeari, haien eskubideak zainduz, euren jabegoetan sortzen diren produktuen jabeak diren aldetik.

Printzipio horien garapen gisa onartu zen urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretua. Dekretu horretan baldintza orokorrak ezartzen dira perretxikoak, basa fruituak, landareak eta loreak biltzeko. Jarduera horrek natur ingurunean sortzen dituen ondorio txarrak mugatzea da helburu nagusia.

Bestalde, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua dioenez, mendien jabe diren erakundeek ordenantzen bidez arautu ahal izango dute perretxiko, basa fruitu, landare eta loreen biltzea, euren udal mugapeen berezitasunak kontuan hartuz eta, betiere, dekretu horretan ezarritako irizpideei jarraituz.

Hala, bada, perretxiko, fruitu eta beste produktu batzuen biltzetak azken urteotan izan duen hazkunde neurrigabearen ondorioz, eta kontuan izanik lurren jabea perretxikoen jabea ere badela (88/2009 Foru Dekretuaren 2.1 artikulua), artikulua horretan oinarrituta kontzeju honek ahalmena du ordenantza hau emateko, perretxikoen aprobetxamendua arautuko duena, modu egoki eta antolatuan egin dadin, ekosistemaren oreka hondatu edo espezieen iraupena arriskuan jarri gabe. Hori guztia, eskubide tradizionalak eta bizilagunei dagozkienak inola ere eragotzi gabe.

Eskubide horiek -eta inoren ondasunen errespetu falta- ordenantza honen proposamenaren eragile izan dira.

I. TITULUA ZATI OROKORRA

1. artikulua.- Oinarria

Kontzeju honek ondo, landare, basa fruitu eta loreen aprobetxamendua arautuko du Gordoako onura publikoko 312. mendian, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikuluan emandako ahalmenak eta mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluan bere mendiak administratzeko ematen zaizkien eskumen eta eginkizunak baliatuz, eta kontuan izanik aipatu foru arauaren 51. eta 52. artikuluetan basa fruitu, ondo, landare eta loreen aprobetxamenduz dauden arauak eta Diputatuen Kontseiluak ondo, landare, lore eta basa fruituen aprobetxamenduen antolaketa arautzeko urriaren 14an emandako 89/2008 Foru Dekretuan daudenak.

Halaber, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrarekin eta aplikatu beharreko gainerako arauekin bat, Gordoako esparruko basa fruitu, landare, lore eta ondoen aprobetxamenduen tasa ezarri eta arautuko da.

2. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua

1. Ordenantza honek, legeria indardunaren beste administrazio publiko batzuei ematen zaizkien eskumenak ukatu gabe, perretxiko, basa fruitu, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen du onura publikoko 312. mendian, "Oraneta eta Borrincruz" izenekoan, aprobetxamendu horrek baliabide mikologikoetan eta perretxikoen habitatan eragiten dituen ondorio kaltegarriak ahalik gehien murrizteko helburuarekin.

2. Tuber generoko boilurren biltzetak bere araudi berezia du Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eta, beraz, ez zaizkio aplikatuko ordenantza honetako xedapenak.

3. Ordenantza honetan xedatutakoa Gordoako onura publikoko 312 mendiko baso guztietan aplikatuko da. Baso horiek behar bezala seinalatuta egon beharko dute, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Gordoako onura publikoko 312 mendiaren barruan dauden finka partikularren jabeek euren lurretan perretxiko biltzea debekatu ahal izango dute berariaz, euren eskubidea baliatuta.

3. artikulua.- Definizioak

Ordenantza honi eta beraren ondoriozko arau eta erabakiei dago-kienez, definizio hauek erabiliko dituzte:

que pueden beneficiarse de los resultados, preservando sus derechos como dueños de los productos que generan sus propiedades.

Como desarrollo de estos principios se aprueba el Decreto Foral 89/2008 del 14 de octubre. En este decreto se especifican las condiciones generales que tendrán que darse para llevar a cabo la recogida de setas, frutos silvestres, plantas y flores con el objetivo fundamental de limitar los efectos indeseados que la actividad provoca sobre el medio natural.

A su vez, el artículo 4 del Decreto Foral 89/2008 de 14 de octubre, establece que las Entidades Propietarias podrán regular mediante ordenanzas la recogida de setas, frutos silvestres, plantas y flores teniendo en cuenta las características peculiares de su término municipal y siempre conforme con los criterios establecidos por este Decreto.

Así pues, debido a la masificación que la recogida de setas, frutos y otros ha experimentado en los últimos años, y teniendo en cuenta que las setas son propiedad del dueño del terreno en donde nacen, (artículo 2.1 DF 88/2009) este Concejo tiene potestad para dictar la presente Ordenanza en base al artículo ya citado, encaminada a regular dicho aprovechamiento de setas para que se realice de manera adecuada y ordenada, sin malograr el equilibrio del ecosistema o la persistencia de las especies, todo ello sin perjuicio de los derechos tradicionales y los que correspondan a los vecinos.

De estos derechos, y la falta de respeto por lo ajeno, nace la propuesta de esta Ordenanza.

TÍTULO I PARTE GENERAL

Artículo 1- Fundamento

En uso de las facultades reconocidas en los artículos 106 de la ley 7/85 del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y de las competencias y funciones que para la administración de los montes de su pertenencia establecen los artículos 4 y 5 de la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes, de conformidad con la regulación de los aprovechamientos de frutos silvestres, hongos, plantas y flores que se contiene en los artículos 51 y 52 de la referida Norma Foral y el Decreto Foral 89/2008, del Consejo de Diputados de 14 de octubre, que regula la ordenación de los aprovechamientos de hongos, plantas, flores y frutos silvestres, éste Concejo procede a regular el aprovechamiento de frutos, setas, plantas y flores en el Monte de Utilidad Pública número 312 (M.U.P. nº 312) de Gordo.

Igualmente, de conformidad con la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, Norma Foral General Tributaria de Álava y demás normativa de aplicación, se procede a establecer y regular la Tasa por el aprovechamiento de frutos silvestres, plantas, flores y hongos del coto de Gordo.

Artículo 2- Objeto y ámbito de aplicación.

1. Es objeto de la presente Ordenanza regular el aprovechamiento de setas, frutos silvestres, plantas y flores en el M.U.P. nº 312 de Gordo, denominado "Oraneta y Borrincruz" sin perjuicio de las competencias que, conforme la legislación vigente, pudieran corresponder a otras Administraciones públicas, con el objeto de disminuir al mínimo los efectos desfavorables de esta actividad sobre el propio recurso micológico y su hábitat.

2. La recolección de trufas, del género Tuber, estará sometida a su regulación específica, por la que se regula la recolección de la trufa en el territorio de la Comunidad Vasca, por lo que no le resultan de aplicación las disposiciones de la presente Ordenanza.

3. Lo dispuesto por esta Ordenanza será de aplicación a la totalidad de las zonas forestales del término del M.U.P 312 de Gordo, las cuales habrán de estar convenientemente señalizadas de acuerdo con lo establecido en el artículo 4.3 del Decreto Foral 89/2008 del 14 de octubre.

4. Los titulares de fincas particulares que constituyan enclaves del M.U.P. nº 312 de Gordo podrán prohibir expresamente la recogida de setas en los terrenos de su propiedad, en aplicación de la voluntad que por derecho propio les corresponde.

Artículo 3- Definiciones

A los efectos de esta Ordenanza y demás normativa y acuerdos de ella dimanantes, entenderemos por:

a) Perretxikoa: onddo baten ugalegitura edo fruitu gorputza, esporak sortu eta sakabanatzen dituen.

b) Boilurra: *Tuber* generoko onddoek garatzen duten koskor mamitsua, tuberkulu formakoa. Ordenantza honen ondorioetarako perretxikoen parekotzat joko da.

c) Baimena: mendiaren jabea den administrazio publikoaren egintza, bilketarako eskubidea erabiltzea ahalbidetzen duena. Baimena ematea interes orokorraren mende egongo da; zehazkiago, basoko ekosistemaren orekaren eta espezieen iraupenaren mende.

d) Bilketarako egutegia: perretxikotan ibil daitekeen egunen eta, eskusioz, ezin ibil daitekeen egunen zerrenda.

e) Eskutada: pertsona heldu baten eskuak har dezakeen sorta.

f) Aprobetxamendua: basa fruituak, landareak, loreak eta perretxikoak eskuz biltzea.

II. TITULUA APROBETXAMENDUEN BALDINTZAK

4. artikulua.- Perretxiko, fruitu, landare eta loreen bilketa onura publikoko mendietan

1. Gordoako onura publikoko 312. mendiko perretxiko, basa fruitu, landare eta loreen aprobetxamenduetan beti errespetatuko da urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 89/2008 Foru Dekretua, eta, produktu horiek natur baliabide berriztagarriak direnez gero, haien zentzuzko erabilera eta kontserbazio egokia uztartuko dira, ekosistemaren oreka eta espezieen iraupena bermatzeko.

2. Mendiak jostetarako erabiltzeko eskubidea aitortzen da arau orokor gisa, baina horrek inola ere ez du aprobetxamendurako biderik emango ordenantza honetan ezarritako mugetatik kanpora, eta ez du inolako eskubiderik sortuko.

3. Perretxiko, fruitu, landare eta loreen aprobetxamendua beti lotu behar zaio ordenantza honetan ezarritakoari. Beraz, aprobetxamendu hori mendiaren aprobetxamendutzat joko da, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikulua eta Arabako Lurralde Historikoan perretxiko, fruitu, landare eta loreen bilketa arautzen duen urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuaren 3.5 artikulua diotenari jarraituz.

4.- Ordenantza honetan araututako aprobetxamendu guztiak urtero Gordoako Kontzejuaren aprobetxamendu planean sartuko dira, beren baldintza ekonomikoekin eta ahalmenaren inguruko baldintzekin, mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haietatik ateratzen den diruaren %15, gutxienez, foru arau horrek arautzen duen hobekuntzetarako funtsera bideratuko da.

5.- Apaingarritarako, sukaldarako edo sendatzeko erabiltzen diren belar eta loreen aprobetxamendua librea izango da, baldin eta gure mendietako espezie arruntak badira eta babestuta edo katalogatuta ez badaude. Gehienez ere, eskutada bat hartu ahalko da pertsona eta egun bakoitzeko sortetan batzen diren espezieen kasuan, edo, ontziren batean batzen diren landare edo loreen kasuan, 200 gramo berdean, pertsona eta egun bakoitzeko.

5. artikulua.- Aprobetxamenduak naturgune babestuetan

1. Gordoako onura publikoko 312. mendia Aizkorri-Arazko parke naturalaren barruan dago eta, beraz, naturgune babestua da. Horregatik, bertako onddo, landare, lore eta basa fruituen aprobetxamenduan, ordenantza honetako xedapenez gainera, natur baliabideak antolatzeke planek eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeke planek berariaz agintzen dutena bete beharko da.

III. TITULUA BAIMENAK

6. artikulua.- Baimenak

1. Perretxiko, fruitu, landare eta loreak bildu ahal izateko baimena Gordoako Administrazioaren Batzarraren erregidore-lehendakariak emango du, edo bestela hark eskuordetzen duen pertsonak. Baimen hori iragarki taulan adierazitako lekuan eskuratuko da, egunero Gordoako onura publikoko 312 mendira bilketarako asmotan heltzen diren pertsonen kopurua kontrolatzeko.

a) Seta: parte reproductora o cuerpo fructífero de un hongo que se desarrolla con la finalidad de producir y diseminar las esporas.

b) Trufa: La masa carnosa con forma de tubérculo originada por hongos del género *Tuber*. A los efectos de esta Ordenanza se asimilará a la seta.

c) Autorización: Acto de la Administración pública propietaria, a través del cual se posibilita el ejercicio del derecho de recolección, condicionado al interés general y, más concretamente, al equilibrio del ecosistema del bosque y a la persistencia de las especies

d) Calendario de recolección: Relación de los días hábiles y por exclusión, los inhábiles, para ejercer la recolección de setas.

e) Manojos: Hacedillo de cosas que se puede coger con una mano de persona adulta.

f) Aprovechamiento: Recogida manual de frutos silvestres, plantas, flores y setas.

TÍTULO II CONDICIONES DE LOS APROVECHAMIENTOS

Artículo 4- Recogida de setas, frutos, plantas y flores en Montes de Utilidad Pública.

1. Los aprovechamientos de los recursos setas, frutos silvestres, plantas y flores en el M.U.P. nº 312 de Gordo, se realizará en todo caso respetando lo reflejado en el Decreto Foral 89/2008, del Consejo de Diputados de 14 de octubre, y considerando su carácter de recurso natural renovable, armonizando la utilización racional del mismo con la adecuada conservación, permitiendo el equilibrio del ecosistema y la persistencia de las especies.

2. Se reconoce con carácter general el derecho al uso recreativo de los montes, sin que ello suponga título alguno que permita un aprovechamiento, al margen de lo dispuesto en esta Ordenanza, o que sirva de modo adquisitivo de derechos.

3. El aprovechamiento de setas, frutos, plantas y flores podrá efectuarse únicamente en consonancia con lo establecido en la presente Ordenanza. Por tanto, será considerado como aprovechamiento del monte, según establece el artículo 36 de la Norma Foral 11/2007 de 26 de Marzo y en el Decreto Foral 89/2008 de 14 de octubre en su artículo 3.5, por el cual se regula la recolección de setas, frutos, plantas y flores en el territorio Histórico de Álava.

4.- Todos los aprovechamientos regulados en ésta Ordenanza se incluirán en el plan anual de aprovechamientos del Concejo de Gordo, con sus condiciones facultativas y económicas, según lo dispuesto en el artículo 36 de la Norma Foral de Montes 11/2007, y de su importe se destinará un 15 por ciento como mínimo al fondo de mejoras regulado por la citada Norma Foral.

5- El aprovechamiento para uso decorativo, culinario o medicinal de plantas herbáceas y flores, siempre que se trate de especies comunes de nuestros montes, y no cuenten con estatus de especies protegidas o catalogadas, será libre, con el límite de un manojos por persona y día, para el caso de especies que se recolectan en ramo, y de 200 gramos de peso en verde por persona y día para plantas o flores que se recolecten en algún tipo de recipiente.

Artículo 5- Aprovechamientos en Espacios Naturales Protegidos.

1. Por estar incluido el M.U.P. nº 312 de Gordo en el Parque Natural Aizkorri-Aratz y ser por tanto Espacio Natural Protegido el aprovechamiento de hongos, plantas, flores y de frutos silvestres se regirá, además de por lo dispuesto en esta Ordenanza, por las prescripciones específicas que sobre esta materia se contengan en sus correspondientes Planes de Ordenación de Recursos Naturales y Planes Rectores de Uso y Gestión.

TÍTULO III AUTORIZACIONES

Artículo 6- Autorizaciones.

1. Para la recogida de setas, frutos, plantas y flores se deberá estar en posesión de una autorización expedida por el Regidor/Presidente de la Junta Administrativa de Gordo o persona en quien delegue, y que se expedirá en el lugar que se indique en el tablón de anuncios, con el fin de controlar el número de personas que diariamente lleguen hasta el M.U.P. nº 312 de Gordo con esta finalidad.

Baimenaren titularrari aprobetxamendu eremuaren funtzionamendu arauak emango zaizkio. Arau horiek bete ezean, baimena indarrrik gabe geratuko da.

2. Ordenantza honetan aipatzen diren baimen guztiak izendunak, pertsonalak eta besterenezinak izango dira.

3. Ordenantza honetan araututako espezieetako aleren bat aldean daraman pertsona orok horretarako baimena eduki beharko du. Bilketak dirauen bitartean biltzaileak baimena eta identifikazio agiriren bat eduki beharko ditu, baita erakutsi ere horrela agintzen badiote. Gordoako onura publikoko 312 mendira doazen baso pistetan perretxikozaleek euren ibilgailuetan daramatzaten perretxiko guztiak mendi horretan bildutzat joko dira.

4. Baimenak eskatzen diren hurrenkera berean emango dira, eta behar izanez gero haien kopurua mugatu ahal izango da.

5. Baimenaren ordezkagiria ibilgailuaren aurrealdeko agintepanelaren gainean jarri beharko da, esparruko kontrol eta jarraipen lanak errazteko.

6. Baimena eskuratzeko tasa ordaindu beharko da, ordenantza honetan ezarritako arauari jarraituz.

7. Jabe den erakundeak biltzen duen dirua xede hauetan inbertituko da: udalerriko mendiak zaindu eta garbitzeko lanetan, ordenantza hau betearazteko kontrol eta zaintzan, eta ehuneko 15 hobe-kuntzetan, indarrean den foru arauak xedatzen duen moduan.

IV. TITULUA ONURADUNAK

7. artikulua.- Aprobetxamenduaren baldintzak

1. Aprobetxamendu eskubidea izango dute honako egoeraren batean dauden pertsonak:

1.1. Gordoan bizi eta udal erroldan inskribaturik dauden pertsonak, bai eta haien ezkontide edo izatezko bikotekideek ere.

1.2. Irabazteko xederik gabeko mikologia elkarte eta erakundeak.

2. Gainera, 1.1 paragrafoan ez zerrendatutako pertsonentzako eguneko, asteko edo denboraldiko baimenak eman ahalko dira. Baimen kopuru mugatua emango da, kontzejuak erabakitzen duena denboraldi bakoitzaren hasieran, aurreikuspenen arabera.

V. TITULUA ZERGA KUOTA

8. artikulua.-

1.- Perretxiko, fruitu, landare eta loreen aprobetxamendurengatik tasa sortzen da, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.- Zerga gaia izango da Gordoako onura publikoko 312 mendian perretxikoak, fruituak, landareak eta loreak biltzea kontsumorako edo merkaturatzeko.

3.- Hurrengo tarifen araberako tasa eskatuko da:

- Denboraldiko baimena eskatuko dute zazpigarren artikuluko 1.1 paragrafoan zerrendatutako pertsonak. Gordoako Administrazio Batzarrak emango die baimen hori doan, izendatzen diren toki edo erakunde laguntzaileetan.

- Zazpigarren artikuluko 1.2 puntuan zerrendatutako pertsonak baimen berezia eskuratuko dute, erregidore-lehendakariak edo hark eskuordetzen duen pertsonak berrikusia.

- 2. paragrafoan jasotako pertsonak eguneko baimena eskuratuko dute. Gordoako Administrazio Batzarrak emango die baimen hori, izendatzen diren toki eta erakunde laguntzaileetan. Pertsona eta egun bakoitzeko 4 euro balioko du. Puntu horretako pertsonentzat asteko abonua ere emango dira, 20 eurokoak, eta denboraldiko abonua, 50 eurokoak.

4.- Baimenak eskatu eta lortzen direnean sorraziko da tasa.

5.- Tasaren subjektu pasibo izango dira, zergadun gisa, perretxiko, fruitu, landare eta loreen aprobetxamendurako baimenen hartzaileak, edo, baimenik gabe arituz gero, aprobetxamenduaren onuradunak.

El titular del permiso recibirá las normas de funcionamiento del área de aprovechamiento, cuyo incumplimiento dejará sin validez el permiso.

2. Todas las autorizaciones a que se hace referencia en la presente Ordenanza tendrán carácter nominativo, personal e intransferible.

3. Cualquier persona que sea sorprendida con algún ejemplar de las especies reguladas en esta Ordenanza deberá de estar en posesión de la autorización correspondiente. La autorización deberá portarse en toda la recolección junto a cualquier documento acreditativo que permita la identificación del sujeto, y deberá ser exhibida cuando para ello se le requiera. Se entenderá que todas las setas que porte o lleve en su vehículo cualquier recolector en las pistas forestales de acceso al M.U.P. nº 312 de Gordoak habrán sido recolectadas en él.

4. Las autorizaciones se concederán por riguroso orden de petición, permitiéndose la limitación de su número si existieran circunstancias justificadas que así lo aconsejen.

5. El resguardo del permiso deberá colocarse en el salpicadero del vehículo para facilitar el control y seguimiento del acotado.

6. Dichas autorizaciones quedarán sujetas al pago de la correspondiente tasa, conforme a la regulación que se establece en ésta Ordenanza

7. El importe recaudado por este concepto por la Entidad Propietaria será reinvertido en la conservación y limpieza de los montes de su término municipal, en el control y vigilancia de lo dispuesto por esta Ordenanza, y el 15 por ciento de mejoras según se determina en la Norma Foral vigente.

TÍTULO IV BENEFICIARIOS

Artículo 7- Condiciones del Aprovechamiento.

1. Tendrán derecho al aprovechamiento las personas que estén en las circunstancias siguientes:

1.1. Ser vecino de Gordoak y figurar inscrito en el Padrón Municipal, así como sus cónyuges o parejas de hecho.

1.2. Asociaciones y entidades con fines de estudio micológico y sin ánimo de lucro.

2. Adicionalmente, podrán expedirse permisos diarios, semanales y por temporada para las personas no contempladas en los apartados 1.1 en un número limitado, que establecerá el Concejo al inicio de cada temporada, dependiendo de las perspectivas de la misma.

TÍTULO V CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 8-

1.- Se crea la Tasa por aprovechamiento de setas, frutos, plantas y flores, con arreglo a lo dispuesto en ésta Ordenanza.

2.- Constituye el hecho imponible la recolección de setas, frutos, plantas y flores con fines de consumo o comercialización en el M.U.P. nº 312 de Gordoak.

3.- La Tasa se exigirá de acuerdo con las siguientes tarifas:

- Las personas incluidas en el punto 1.1, del artículo séptimo deberán proveerse de un Permiso de temporada que les será facilitado por la Junta Administrativa de Gordoak, en el lugar o entidades colaboradoras que se designen, de forma gratuita.

- Las personas incluidas en el punto 1.2 deberán proveerse de una autorización especial revisada por el Regidor/Presidente o persona en quien delegue.

- Las personas incluidas en el punto 2, deberán obtener un permiso diario expedido por la Junta Administrativa de Gordoak, en el lugar o entidades colaboradoras que se designen, cuyo importe será de 4 euros, por persona y día. Igualmente se expedirán permisos en forma de Abonos semanales, cuyo importe será de 20 euros, y de temporada, cuyo importe será de 50 euros, para las personas incluidas en este punto.

4.- La Tasa se devengará cuando se soliciten y obtengan los permisos correspondientes.

5.- Son sujetos pasivos de ésta Tasa las personas, en concepto de contribuyentes, a cuyo favor se otorguen las autorizaciones para el aprovechamiento de setas, frutos, plantas y flores, o quienes se beneficien del aprovechamiento si se procedió sin la oportuna autorización.

VI. TITULUA BABES NEURRIAK

9. artikulua.- Bilketarako egun baliodunak eta ordutegia

1. Egunero bildu ahal izango dira perretxikoak, goizaldetik hasi eta eguzkia sartu arte. Hala ere, kontzejuak bilketa debekatu ahal izango du ehiza jarduera bateraezinak egiten diren egun eta orduetan edo bilketarako eguraldi txarra dagoenean. Arabako Foru Aldundiak debekua ezartzen duen egunetan ere ezin izango da perretxikotan ibili.

2. Aurrekoaz gain, kontzejuak urteko bilketa egutegia onartu ahal izango du. Egutegi horrek aintzat hartuko du, batetik, baliabideen babesa eta, bestetik, aprobetxamendu horren eta mendiak eskaintzen dituen gainerako erabilera eta aprobetxamenduen bateragarritasuna. Era berean, egutegi horretan perretxikoak zer egunetan bildu ahal izango diren zehaztuko da. Espezie edo eremuen arabera aldaerak ezarri ahal izango dira.

10. artikulua.- Jokabide debekatuak

1. Arau orokor gisa, perretxikoak bilatzeko fasean nahiz lurretik batzerakoan, debekaturik egongo da lurra iraultzea, azaleko landare lurra eta gaineko estalkia mugituz, eskuz, hankaz edo orbela eta lurrustela altxa ditzakeen tresnaren bat erabiliz. Onddo hipogeoa (lurpean hazten direnak) biltzen direnean, bestelako araudirik ezean, lurra lehen zegoen bezala utzi beharko da, hau da, onddoak ateratzeko egindako zuloak berriro bete beharko dira haietatik ateratako lurrarekin.

2. Debekaturik dago lau zentimetrotik beherako txapela duten perretxikoak biltzea, *Cantharellus cinereus*, *lutescens* eta *tubiformis* espezieetakoak (hurrenez hurren saltsa-perretxiko aranusaina, horia eta horiluna) eta *Marasmius oreades* edo marasmio jangarria izan ezik; horiek batez beste bi zentimetrotako txapela izan behar dute gutxienez.

3.- Aprobetxamendu eremuko mugak errespetatuko dira, baita Gordoako Kontzejuak ezar ditzakeen seinaleak ere.

11. artikulua.- Tresnen erabilera

1. Ez da onartuko perretxikozaleek eskuare, kako, igitai, aitzur, jorrai, aliketa edo antzeko tresnarik eramatea, nahiz eta ez erabili, eta horien neurriak gorabehera.

2. Perretxikozaleek aitzoa, labana edo antzeko tresnaren bat baino ezin izango dute erabili.

3. Bakar-bakarrik boilur matxetea erabili ahal izango da onddo hipogeoa biltzeko, berariazko arauaren batek eragozten ez badu.

4. Zuhaitzetatik materialak biltzeko, inausteko artaziak erabili ahal izango dira, edo aldaxkak mozteko labana.

12. artikulua.- Bilketarako arauak eta biltzeko moduak

1. Helduen ohiko neurriak dituzten perretxikoak hartuko dira, betiere ordenantza honen 10.2 artikuluan ezarritako gutxienezko neurriak dituztenak. Ale zaharrak, apurtuak edo hondatuak edo eraman nahi ez direnak dauden lekuan utziko dira, suntsitu gabe.

2. Identifikatzeko zalantzak daudenean izan ezik, perretxikoa bere hanka osoarekin hartuko da, eta baztertuz gero berriro jarriko da bere lekuan, orriak (edo hodiak) behera begira dituela. Landare, fruitu eta loreak identifikatu egingo dira hartu aurretik, eta ez da behar-beharrezkoa den zatia besterik hondatuko.

3. Betiere mizelioa bere horretan utzita hartuko dira perretxikoak. Behealdetik moztu edo osorik atera ahal izango dira, espeziearen arabera (*Amanita*, *Boletus*, *Lepiota* etab.). Paragrafo hau artikulua honetako 2. paragrafoaren kontrako da, baina zientifikoki egiaztatuta dago zenbait espezieetako perretxikoak, esate baterako *Boletus* generokoak, osorik ateratzeak ez diola mizelioari kalterik egiten, baldin eta onddoa atera ondoren lurreko zuloa betetzen bada.

4. Esporei sakabanatzen laguntzeko, perretxikoak zumez, lastoz, kanaberaz edo antzeko materialez egindako saskietan eramango dira, horien egiturak esporei kanpora zabaltzen uzten baitie.

TÍTULO VI MEDIDAS DE PROTECCIÓN

Artículo 9- Días hábiles de recogida y horario

1. Se podrán recoger setas todos los días, y desde el amanecer hasta la puesta del sol. No obstante, el Concejo podrá prohibir esta recolección en aquellos días y horas que coincidan con actividades cinegéticas incompatibles o climatología adversa. Igualmente quedará prohibida la recogida los días en que Diputación Foral de Álava así lo haya establecido.

